- Azkenik, ikastetxearen planoan, honako hauek seinalatuko dira: ikasgela, laborategia, tailerra, komunak, ura zein gunetan erabiltzen den eta zein gunetan kutsa daitekeen.

3. URRATSA. Zuzenketa eta kontrol neurriak planifikatu eta abian jarri

Bildutako datuak kontuan hartuz, ikastetxeko egoera hobetzeko ekintzak taxutu ahal dira:

Kontsumoa murriztea

- Txorrotak eta tangak aztertzea, ur jariorik egon ez dadin.
- Itxiera automatikoko txorrotak ipintzea.
- Eguneroko ohiturak aldatzea (hortzak garbitzean txorrola ixtea, bainatu beharrean duxatzea...).
- Komunitateko tangetako ur bolumena murriztea, horretarako, barruan, urez beteriko botilak ipiniz.
- Beharren arabera, ur-kopuru txikia eta ur-kopuru handiagoa erabiltzeko aukera ematen duten tangak instalatzea.
- Baratzak eta lorategiak ureztatzeko, euri ura biltzea.

Kutsadura murriztea

- Komunera zaborrik ez botatzea.
- Ingurumena zaintzen duten garbigarriak erabiltzea (lixibaren ordeztu, ozpina erabil dezakegu).
- Tailer eta laborategiko praktikan, hondakin urak biltzea, tratatuak izan daitezkeen eta etxeko hondakin urekin nahas ez daitezkeen.

4. URRATSA. Emaitzen berri eman

- Ur kontsumoan gertatu diren aldaketak neurtu eta eskola elkarteak jakinaraztea.
- Hondakin uren kutsadura murrizteko erabili diren bideei buruzko publizitatea egitea.
- Proposatutako neurriak, beroriek gauzatzeko planak eta lortutako emaitzak ikastetxeko guztiei helaraztea.




Zelaia ureztatzeko ez dago berdegunea urpetu beharrik. Ikastetxeko ekin-tza guztietan kontsumo egokia ezartzea ezinbestekoa da.




Ur-kontsumoa aztertzen Ormaiztegin.

SAN ANDRES HERRI ESKOLA

San Viator ikastetxekoak ura irazi ondoren bereizitako hondakinak aztertzen.
JOSE MARI MARTÍNEZ





Urarekin jolastu eta gero... zer?









HELBURUAK

- Uraz gozatzea.
- Ingurunearekiko interesa eta jakin-mina piztea.
- Ura aurrezteko jarrerak sustatzea.

MATERIALA

- ◆ Harri bat, hosto bat, pilota bat, lapitz bat, plastikozko botila bat, iltze bat, etab.

Flotatzten du ala ez?

	 bai	 ez
 lapitza		
 harria		
 plastikozko botila		
 hostoa		
 iltzea		
 pilota		

Jardueraren garapena

Urarekin jolas batzuk eta berari buruzko oharpen batzuk egin ondoren, honako esperimentu hau proposatuko dugu: uretan zein gauzak flotatzten duen eta zeinek ez begiratzea. Esperimentua egin baino lehen, euren iritzia adierazteko fitxa bete egin behar dute. Esperimentuko proba bakoitza egin ondoren, berriro beteko dute fitxa: oraingoan, errealitatean gertatzen dena aintzat hartuz.

Azkenik, taldeka, esperimentua egin baino lehen uste zutenaren eta emaitzak lortu ondoren pentsatzen dutenaren arteko diferentziak zehaztuko dituzte.

Planteatutako galderen erantzunak arrazoitzen saiatuko gara; esaterako: zergatik hondoratzen da harria, eta hostoa ez?

Azkenik, erabilitako urarekin zer egin daitekeen galdetuko diegu: landareak ureztatze erabiltzea proposatuko diegu.



Zain dezagun ura

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- TUTORETZA.

HELBURUA

- Ikasleengan egunez eguneko ur kontsumoarekiko kontzientzia piztea.

ORRIALDE
honetako marrazkien bitartez, taldeak ur alferrik galtzen duten ala, aitzitik, tanta bat ere xahutzen ez duten hausnartuko du. Horretarako, irudi guztiei begiratu ondoren, honelako galderak egingo dizkiegu:

- jarrera horietako zein ez da zuzena?, zergatik?
- zer egin beharko genuke?
- zer bururatzen zaizu aztura horiek hobetu edo zuzentzeko?

Iturburua:

ESTUDIOS INFORMES NAVARRA, S.L. (koord.). **Ingurugiro hezkuntzarako materialak. Lehen Hezkuntza. Kutsadura. // Materiales de Educación Ambiental. Educación Primaria. Contaminación.** (Unitate Didaktikoen karpeta) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Gasteiz, 1996.



Zer botatzen dugu uretara?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.

MATERIALAK

- ◆ Kristalezko bi poto.
- ◆ Eskuak garbitzeko ontzia edo konketa
- ◆ Lupa.
- ◆ Papera.
- ◆ Kartulina zuria.
- ◆ Koaderno eta boligrafoa.

HELBURUA

- Ikastetxean erabilitako uraren kutsadura mailari buruzko hausnarketa egitea.

Esperimentu erraz bat egingo dugu urarekin, ura nola zikintzen dugun eta, beraz, ikastetxetik irteten denean zer-nolako egoeran dagoen ikus dezan taldeak.


Esperimentuko urratsak




1. Bete iturriko urez kristal gardenezko poto bat.



2. Plastika eskolan egindako jardueraren baten ondoren edo jolasaldia eta gero, garbitu eskuak eta bete bigarren potoa eskuak garbitzeko erabilitako urarekin.




3. Ipini bi potoak kartulina zuri baten aurrean eta erreparatu bien arteko ezberdintasunei.



4. Egin paperezko eta kukurutxo formako bi iragazki, poto bakoitzeko ura iragazteko.



5. Zabaldu bi iragazkiak eta aztertu lupaz horietan geratu diren hondarrak. Begiratu poto batean bestean baino hondar gehiago geratu den; nolakoak dira?



6. Iragazki-paperak lehortu ondoren, begiratu berriro eta erreparatu ezberdintasunei.

Ikusi dituzun hondarrak erantsi dizkiogu urari.

- Nola irteten dira hondakin urak gure ikastetxetik?
- Zer gertatuko da landareek edo arrainek ur hori zurgatutakoan?
- Nola hobetu ahal dugu egoera hori?



Kontsumoak erkatu

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.

HELBURUA

- Egunerokoan erabiltzen dugun ur kantitatea kalkulatzeko eta beste herrialde batzuetan erabiltzen dutenarekin erkatzea.

Jardueraren garapena

Hasteko, galdera batzuk egingo ditugu: horietako batzuei erantzun egin beharko die; beste batzuek, berriz, ikasleei Hirugarren Munduan uraren erabileraren inguruan gertatzen denaren berri emateko xedea daukate.

- Zenbat komun dago gure ikastetxean?
- Zenbat lagun gara geure eskolan?
- Zenbat aldiz erabiltzen du gutako bakoitzak eskolako komuna?


Badakizu...

- ...komunera joan eta tanga husten dugun bakoitzean, 10 litro ur botatzen dugula?
- ...Hirugarren Munduan 1.600 milioi lagunek ez daukatela ur korronterik etxean?
- ...persona horiek ur bila doazen bakoitzean, gehienez, 15 litro garraiatu ahal dituztela?


Galdera horiei erantzun ondoren, komunean zenbat ur erabiltzen dugun kalkulatzeko eskatuko diegu (ikasle kopuru osoa eta tanga husten dugun bakoitzean erabiltzen dugun ur kantitatea izan beharko dituzte kontuan).

Kantitatea ebazteko egin beharreko eragiketa matematikoak burututakoan, honako beste galdera hauek egingo dizkiegu:

- zenbat bidaia egin beharko genuke ur kantitate hori ibairik hurbilenetik garraiatzeko?,
- zenbat denbora beharko genuke horretarako?



Euskadiko eta Indiako grafikoetan, etxeke jardueretan erabiltzen diren ur portzentajeei buruz ageri diren datuak erreferentziatzat hartuz, Indian erabiltzen diren kantitate berberak erabiliko bagenitu, ura zertan eta nola aurreztuko genukeen erabaki beharko dute.



Edateko ura gure planetan

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- MATEMATIKA.

HELBURUAK

- Lurrean dagoen edateko uraren proportzio txikiaz kontzientziatzea.
- Laborategiko materiala erabiltzea eta ahalik eta neurketarik zehatzenak egiten saiatzea.
- Zenbakiz adierazitako datuak grafiko bidez irudikatzea.

MATERIALAK

- ◆ 1.000 cm³-ko bi probeta
- ◆ 100 cm³-ko lau probeta
- ◆ Pipeta bat
- ◆ Ura (koloreztatua bada, hobe).

Jardueraren garapena

Hasteko, egin uraren zikloen eskema, erlazio guztiak adieraziz. Saiatu honako osagai eta prozesu hauek eskema horretan islatzen: ur-lurrina, euria, elurra, txingorra, hodeiak, ur iragazia, iturri eta lakuak, ibaiak, zingirak, itsasoak eta ozeanoak,


hondakin urak, hondakinak, gizakia, landareak, animaliak, transpirazioa, lurruntzea, fotosintesia, arnasketa, elikadura, nekazaritza eta industria.

Bigarrenik, begiratu datu hauei (*National Science Teachers Association* erakundeak 1991ko otsailean argitaratutakoak).

Lur planetako urari buruzko datuak

Itsaso eta ozeanoak

%97,2



Ur geza
%2,8

Ur geza guztiaren (%2,8) banaketa


Azaleko ura **%0,022**

Lur azpiko ura

%0,397


Airea eta lurzorua

%0,001



Polo eta glaziarra
%2,380


Esperimentuko urratsak




1. Ipin litro bat ur koloreztatu probeta batean; eman dezagun horixe dela Lurreko ur guztia.




2. Atera probeta horretatik 28 cm^3 eta ipin itzazu 1.000 cm^3 -ko beste probeta batean: horixe izango da planetako ur geza.




3. Ur geza horretatik, kendu 23 cm^3 eta ipin itzazu 100 cm^3 -ko beste probeta batean: horixe da poloetako eta mendiko glaziarretako ura.



4. Geratzen diren 5 cm^3 -etatik, ipini 4 cm^3 100 cm^3 -ko beste probeta batean: lur azpiko ura da hori.



5. Geratzen den zentimetro kubiko horretatik ia guztia, ipini 100 cm^3 -ko beste probeta batean: horixe da Lurraren gainazalean dagoen ur erabilgarria.



6. Bota azken tantak beste probeta batean: horixe da airean eta lurzoruan dagoen hezetasuna, lurzoruko animalia txikien eta belarren bizigai dena.

Orain, osatu honako taula hau:

Lurreko ur guztia: 1.000 cm^3			
	kopuru osoaren %	cm^3 -tan (probeta)	ur gezaren %
Polo eta glaziarrek			
Lur azpiko urak			
Azaleko urak (lakuak, ibaiak...)			
Lurzoruko eta aireko hezetasuna			
Ur geza guztia			
Ur gazi guztia			

- Irudikatu aurreko datu horiek grafiko sektorialetan.
- Azaldu laborategian, ikusteko moduan, Lurrean dagoen uraren proportzio handi bat ur gazia dela eta izaki bizidunek erabili ahal dutena, aldiz, oso txikia dela.

Azkenik, saiatu honako galdera honi erantzuten:

Ura birziklatu egiten da; beraz, zergatik gara ur nahikorik izango ez ote dugun beldur?



Euskadiko ibaien ikerketa Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eginkizunetako bat da. "EAEko ibaietako uren kalitatea eta ingurunearen egoera zaintzeko sarea" sare hidrografikoaren egoera ezagutzeko eratu da, horretarako, analisi fisiko-kimiko eta biologiko batzuk eginez.



Gure ibaien egoera

ZAINKETA-SARE horren helburu nagusia ibaietako uren kalitatearen bilakaera eta ibaien ingurumen-egoera artatzea da.

Hauxe lor daiteke zaintza horri esker: oraingo eta etorkizuneko arazketa eta saneamendu ekintzen eragina egiaztatzea; ekosistema hidrikoak jasan litzakeen erasoei antzematea; ingurumen arloan gauzatu behar den politika finkatzea, eta abar.

Lan metodoa honetan datza: laginketa-estazioen ingurumen egoera sailkatu eta kartografiatzean. Laginketetan, alde batetik, aldagai fisiko-kimiko eta mikrobiologiko batzuk aztertzen dira, eta bestetik, ibilguan bizi diren komunitate biologikoak.

Uren kalitatea adierazle kimikoek (analisi fisiko-kimikoek eta mikrobiologikoek zehazten dituzte) eta adierazle biologikoek (ingurumen egoerak, ertzeko basoaren egoerak, arrainen egoerak eta beste zenbait) zehazten dute.

Jarduera honetan, ibai baten ingurumen egoera iker-tuko duzue. Horretarako, aztertuko duzuen zona aukeratu eta berari buruzko informazioa batu beharko duzue.

Datu bilketa errazteko, Eusko Jaurlaritzak ingurumenari buruz daukan web gunearen helbidea emango dizuegu ondoren; bertan, EAEko ibaietako uren kalitatea eta ingurunearen zaintzeko sareak biltzen dituen datuak kontsultatu ahal dituzue.



Behaketa fitxa

Fitxa honetako galderak interesatzen zaizkigun datuak ezagutzeko gida moduan erabil ditzakegu.

Datuak bildutakoan, eztabaida antolatu ahal dugu ikastaldean, ibaiaren ingurumen egoera zein den erabakitzeko. Ondo legoke arro bereko beste ikas-tetxe batekoekin harremanetan jartzea eta lan bera egin dezaten eta bildutako informazioa truka dezazuen proposatzea. Horrela, bi taldeok ikertu dituzuen ibai-tarteetan gertatzen diren arazoen eta erabil litezkeen irtenbideen berri izango duzue.

Zein da aukeratu duzuen tartearen egoera?

.....

.....

Non daude hurbileneko laginketa-estazioak?

.....

Zer dira erreferentzia-estazioak? Badago baten bat zuek aukeraturutako tartean?

.....

.....

.....

Nola definitzen da uren kalitate ekologikoa?

.....

.....

.....

eta laginketa-estazioen egoera ekologikoa?

.....

.....

.....

Zein inpaktu jasaten du ibaiak zuen aldean?

.....

.....

.....

Zein irtenbide proposatzen da inpaktuok zuzentzeko?

.....

.....


.....



Web orrialdeak


Zainketa-sarea

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia




Laginketa-estazioak

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/datos/mapa/pun




Kalitate ekologikoa

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/Calidad_Ecologica_c.htm



Inpaktuak eta irtenbideak

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/impactos_c.htm



Ibaien egoera

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/pueblos

Erreferentzia-estazioak

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/referencia_c

Foru aldundien web guneetan argibide gehiago lor daiteke:

- web.bizkaia.net/Ingurugiro/Europako_eskakizunak/ca_cumpl.htm
- www.gipuzkoa.net/obras-hidraulicas/infor/index-e.htm
- www.alava.net/index800_c.htm

Atsotitz nahastuak

*Ura esaera zahar askoren giltzarria da.
Horrek, herrientzat izan duen garrantzi
esker ga gogorarazten digu.*

Ondoren, esaera zahar batzuen hasiera eskaintzen dizugu, euren bigarren zatiarekin lot ditzazun. (Begiratu errimari).

- | | |
|--------------------------------|---|
| 1. munda handia izan arren... | A. ...urte guztike euria. |
| 2. urak eta egia... | B. ...bur ederra. |
| 3. urik bakarrik... | C. ...igerian egitea txarra. |
| 4. ur lasterra... | D. ...errotarik ez dabil. |
| 5. urak ez daramana... | E. ...euria seguru. |
| 6. janda gero... | F. ...uharreak. |
| 7. maizteke euria... | G. ...beti beren bidea segitzen. |
| 8. kuka kantatzen... | H. ...ez daki batek noren behar izango den. |
| 9. ur geldia... | I. ...euri eta eguzki. |
| 10. katua muturra garbitzen... | J. ...igelentzat ona. |

Hemen daukazu esaerak osatzeko beste modu bat, are jostagarriagoa:

Idatzi papertxo banatan esaeren zatiak. Ikastalde erdiak lehenengoak edukiko ditu, eta beste erdiak bigarrenak. Ikasleek euren esaeraren beste erdia duen kidea aurkitu beharko dute; horretarako, ozenki esango dute beren esaera-zatia, beste norbaitek erantzun eta esaera zaharra osatu arte.

Soluzioak

1-h, 2-g, 3-d, 4-b, 5-f, 6-c, 7-a, 8-i, 9-j, 10-e

Educación ambiental, asignatura pendiente para el siglo XXI



María Novo

Cátedra UNESCO
de Educación
Ambiental de la
UNED.

25
URA



PARA QUIENES vamos cumpliendo años, recordar el Congreso de Estocolmo (1972) significa retroceder al momento en que nuestras conciencias despertaban a la preocupación ambiental. Este año se cumplen ya 30 años de esa fecha, y desde entonces hasta nuestros días se ha hecho un largo camino, un recorrido en el que la educación ambiental ha ido tomando consistencia en la escuela, se ha ido integrando en los movimientos sociales, en las ONGs y en la sociedad civil, en general. Estas casi tres décadas que nos separan de Estocolmo han sido tiempo de hacer y proyectar, también tiempo de imaginar y de construir.

En los países mediterráneos tuvimos una incorporación tardía a la corriente europea de educación ambiental, pero supimos llevar a cabo en breve tiempo una síntesis entre lo ecológico y lo social, que pronto nos situó como pioneros. Del conservacionismo anglosajón aprendimos el respeto por la naturaleza, pero nuestra sensibilidad por lo social, la vivencia cercana de tantos problemas de desarrollo, nos hicieron comprender que era imposible ser fraternal con la naturaleza sin serlo, al mismo tiempo, con la naturaleza humana: esos miles de millones de personas que viven en la pobreza. Nuestros programas avanzaron así sobre una idea básica: *el planeta puede satisfacer las necesidades de la humanidad, pero no su ambición*. Esa síntesis entre lo ecológico y lo social ilumina, ya desde la década de los ochenta, la mayor parte de las aportaciones teóricas y prácticas desarrolladas en nuestro entorno.

¿Quiénes fueron los artífices de esta integración? Imposible poner nombres, dar detalles. Personalmente, en los últimos veinte años he visto pasar ante mis ojos proyectos de escuelas, ONGs, universidades, laboratorios territoriales, institutos, fundaciones, empresas, que se movían en esta dirección: la de una educación ambiental orientada a la raíz de los problemas, allí donde sólo es posible interpretar los conflictos del medio a la luz de múltiples perspectivas: la ecológica, pero también la ética, la económica, la política, etc. Con este telón de fondo, la ilusión y el trabajo desinteresado de muchos educadores ha hecho lo demás: una búsqueda de modelos, un tanteo permanente, en el que hemos ido aprendiendo unos de otros, sabiendo que ahí, en el camino, estaba alojado el mayor de nuestros retos: ser coherentes y conciliar la teoría que enseñábamos con nuestras prácticas y modos de hacer.

No fue fácil. Sigue sin serlo. Pero, *hemos aprendido que no podremos enseñar a respetar la diversidad biológica destruyendo diversidad cultural y humana*. Aprendimos también que la escuela es un instrumento básico para el trabajo educativo ambiental, pero que fuera de ella existe un amplio colectivo social cuya incidencia en el uso de los recursos reclama proyectos y programas específicos. Así, al lado del trabajo inestimable de los educadores formales, hemos visto florecer iniciativas que han impregnado el tejido social de nuevos valores ambientales.

Y por ahí, caminando, se nos hizo de día: año dos mil dos, un nuevo milenio. El valor del momento presente no radica en lo que sabemos sino en que, al fin, hemos comprendido que sabemos poco, *que para entender la complejidad del mundo vivo necesitamos abrazar la incertidumbre, el azar, y asomarnos a su interpretación con la humildad de quienes no tienen todas las claves, con la búsqueda respetuosa que precede a todo compromiso*. Estamos interpretando el mundo, desde el gran macrocosmos hasta el pequeño microcosmos en que vive cada uno de nosotros. Queremos, al mismo tiempo, ayudar a otros a amarlo y a respetarlo. Lo esencial de la función interpretativa está en reconocer que, si bien el soporte y el rigor científico son condición necesaria, la ciencia no puede, por sí sola, dar cuenta de la complejidad de la vida en toda su extensión.

Razón y corazón, ciencia y conciencia: el reto al que estamos dando respuesta es el de *construir conocimiento sin dejar de imaginar: imaginar respuestas, imaginar mundos mejores*, en los que quepa la equidad, en los que la rapiña depredadora deje paso a la conservación de nuestro legado ambiental. Empeñados ahí, unos y otros, quienes trabajamos en la universidad, quienes lo hacen en la escuela, los que educan fuera de ella, sentimos que el camino recorrido nos trajo a un presente incierto, y que de aquí al futuro la andadura consista no tanto en celebrar los hallazgos, sino en seguir buscando. En esa tarea, *somos el lazo que tejemos, el abrazo que construimos*. No tenemos más mensajes que nuestra propia capacidad de investigar y aprender, nuestro compromiso, nuestra mirada atenta hacia el entorno. Al fin sabemos que la educación ambiental no consiste tanto en dar respuestas como en enseñar a hacerse preguntas. No es poco. En ese arte de preguntar se incluye el de preguntarnos. Y de asombrarnos. Y de cambiar. Es decir, el arte de estar vivos.

SARETIK BUELTAKA




Uraren mundu eguna
www.unesco.org/science/waterday2000/wdw2000_Spanish.htm

Martxoaren 22a izendatu du UNESCOk Uraren mundu eguna. Gune honetan, egun horren gaineko eta urarekin zerikusia duten arazoei buruzko informazioa aurkituko duzue.



Urari buruzko oinarritzko gidaliburua
www.unescoeh.org/manual/html/agua.html
 UNESCOk diseinaturiko gune honetan atal berezi bat eskaintzen zaio ur gezari. Mintzaira erraz eta ulergarri hitz egiten digu ibaiek zibilizazioen historian izan duten eraginaz, ibai-ardatzek espazioaren antolakuntza izandako garrantziaz eta abarrez.



Urari buruzko monografia
www.monografias.com/trabajos5/elagu/elagu.shtml
 Web gune honen aurkibideari begiratu bat eman besterik ez duzue monografia hau oso-oso dela konturatzeko. Oraingo honetan, ura ikuspuntu teknikoago batetik aztertzen da.

Gernikako itsasadarretik behera kanoaz

GERNIKAKO itsasadarrean behera kanoaz jaitsiz gozatu ahal izateko udara arte itxaron beharko duzuen arren, ez ahaztu bi taldek antolatzen dituztela jaitiera horiek. Ez da kanoak edo piraguak maneiatzen jakin beharrik; nahikoa da igeri egiten jakitea eta, itsasadarrean zehar goazalarik, Urdaibaiko paisaiatzat gozatzeko gogoia izatea.

Ibilbideak hiru ordu irauten du eta banaka zein taldeka egin daiteke (ikastaldeentzako eskaintza bereziak eta ikasturte amaierako txangoak ere badira, besteak beste); kanoak eta piraguak eserleku batekoak eta bikoak dira. Itsasadarrean behera gidariarekin edo zeuen kasa jaits zaitezke.

Natur inguruan aurkitzen garen guztietan, bertan bizi diren izakiei ez eragozteko garrantzizkoa da. Piraguaz jaisten garenean bi gauza izango ditugu kontuan: itsasadarrean erditik ibili eta bertako hegaztiengana ez hurbildu.

Ordutegi, prezio, baldintza eta abarri buruzko argibide gehiago nahi baduzue, hitz egin antolatzaileekin:

Laida kanoak

☎ 946 276 515

www.laidakanoak.com

Ur 2000

☎ 944 790 656

www.ur2000.com

Bidaide, natura eta abentura programa

ETB1-ean, astelehenetik ostiralera, 15.45etik 16.45era



Garazi Urdanpilletak, 1999ko ekainetik emititzen ari den programa honen aurkezle berriak (lehen gidolaria zenak), balea, hartz zuria, elefantea, errinozeroa, hiena eta desagertzeko zorian dauden beste animalia batzuen bizimoduaz hitz egiten digu saio honetan, bai eta Asiako eta Afrikako faunako beste batzuek ere. Urrutiko paisaiak ere ekartzen dizkigu (hurbilago dauden bazter askoren edertasuna ahaztu gabe), geure etxeetatik bertatik bidaiatzeko aukera izan dezagun.



Punttu berdea

Gozatuz zaindu

JOSEBA GOIENOLA

Gaur egun, ingurumena zaintzeko jarduerak ontzat hartzen baditugu, eta horietako batzuk betetzen baditugu ere, ikuspuntu aldaketa bat proposatuko nuke, aurrerantzean ingurumenaz hobeto eta gehiago ardura gaitzean. Ingurumena zaintzea ez da obligaziotzat hartu behar, gure gozamen iturrien zaintza moduan baizik. Natura gozatzeko ikasi eta irakatsi behar dugu, eta ez da zaila, horretarako milaka aukera desberdin baitaude. Gozatzeko ikasitakoan berez zainduko dugu, inoren agindua eta iragarkien beharrik gabe. Gustuko gauzak beti zaintzen dira ondo.

"Ai zenbat toki eta gertaera ditudan bihotz barnean naturarekin elkartrukean elkarren gozamenen zain dezagun natura saiestuz kutsadura a(ha)l den modu onenean eta ordaina jasoko dugu denboraren joanean".

"Gorrito dena baino hobeto zaintzen da maite duguna ta ez bada falta naturak guri sortzen digun maitasuna egunetik gauera gauetik egunera entzun zaidazu laguna berarengandik jasoko duzue guk ematen dioguna".

Doinua: Iparragirre

Izate ingurumen taldea

Izate Barakaldoko talde txiki bat da, duela urtebete luze sortutakoa, non, besteak beste, Azterkosta eta Ibaialde kanpainetan parte hartzen duten gazte boluntarioen ahaleginak batzen diren (Azterkosta kostaldeaz arduratzen da, eta Ibaialde, ibaiez). Horrez gain, natur intereseko beste arlo batzuetan ere badihardute, hala nola ornitologian, mikologian eta abar. Gaur egun, Retuertoko Castaños ibaiaren tarte bat aztertzeko helburua duen proiektu interesgarri bat garatzen ari dira. Proiektu horrek tokiko fauna eta flora deskribatzen dituzten ibilbideak ere hartzen ditu barne. Aurtun egin dituzten jardueretan, Peñas Negrasen garbiketan parte hartzea eta Argazki Rallya azpimarratu behar dira, bai eta Pobeñan izandako erakusketa ornitologikoa ere, non hainbat espezieri buruzko informazioa eman zen.

Haiekin harremanetan jar zaitezten animatu nahi zaituztegu. Zuhatzuko Kultur Etxean aurkituko dituzue astearte eta ostegunetan, arratsaldeko zazpietatik bederatzietara.

Zuhatzuko Kultur Etxea. BARAKALDO. Unamuno 7, behea.

Bilerak: ostegunetan arratsaldeko 7etatik 9etara.

☎ 944 851 545 (Sergio) ● izate@hotmail.com



27
URA

¡HITZA

El río que nos lleva

José Luis Sampedro

Ediciones RBA. Bartzelona, 1993.

Aquí, ahora (...) parece que lo que tiene cuerpo verdadero son las sombras tan vivamente dibujadas; que lo que tiene voz es el silencio tan vibrante...

Lirismo teluriko eta kadentziatsu horren bitartez, Espainiako literaturako idazle handietako batek *gakolariek* Tajo Garaia ibilguan izandako abenturak kontatzen dizkigu. Bere obra guztietan bezala, J. L. Sampedro bere protagonisten azalpean jartzen da, bere egiten ditu haien ahotsak eta sentitzeko modua, idazlea bera ingurune gogor horretan bizi izan bailitzan, zuhaitzen enborrak daramatzan ur-korrontearen lekuko izan bailitzan, hau da, Antonio del Real zuzendariak zinemara eraman zuen istorio honetako ibaiak berak eramango balu bezala.

El autobús mágico viaja por el agua

Joanna Cole eta Bruce Degen

Ediciones SM. Madril, 1991.

Carola *Eskarolak*, irakasle eroenak, ez ditu eskolako gainerako maisu-maistren ohiko prozedurak erabiltzen. Oraingoan, hiriko Udal Araztegia ezagutzeko txangoa antolatu du. Bere taldeko neska-mutilek, urpean igeri egiteko jantzita, hurbiletik ezagutuko dituzte urak izan ditzakeen egoerak eta egin ditzakeen bideak: hodeiak, euria, elurra, errekek, hoditeria, txorrotak...



Bideoklubean

El río de la vida (A river runs through it)

Film estatubatuarra, Robert Redfordek

1992an zuzendua; protagonistetako bat ere bera izan zen.

Norman eta Paul, protagonistak, artzain pro-



testante baten semeak dira, biak aitaren gogortasun eta diziplinaren menpe hezitakoak. Hala ere, haien bizimoduak eta izaerak oso ezberdinak dira: Norman irakaslea da eta ondo doazkio gauzak arlo sentimentera; bere anaia Paul, ordea, ez dago oso gustura aitaren etxean. Aitarekin arrantzan egiten zuten ibaia da istorioaren haria eta hiruren arteko lokarria.

Musika

G. F. Haendel-en musika akuatikoa

Obra hau Ingalaterrako George I.ak 1717an Whitehalletik Chelseara egin zuen paseo baterako konposatu omen zuen Haendelek; erregeak bere segizioak eta bide osoan partitura hau jotzen joan ziren musikariek lagunduta egin zuen ibilaldia. Obra klasiko bat da, isiluneak eta soinuak dituen; dabilen urak sortzen duen marmar akuatikora hurbiltzen saiatzen da, eta korapilatzen eta elkarlotzen diren erritmo geldoak ditu.



La Asociación vecinal de Ulía trabaja por el saneamiento del Urumea

OS ENVIAMOS un saludo desde la Asociación de Vecinos de Ulía, un barrio bañado por el mar, situado junto a la desembocadura del río Urumea. Y como nuestro mar y nuestro río nos importan y mucho, deseamos que gocen de buena salud, por lo que trabajamos en su defensa. ¿Cómo? Participando en los programas IBAIALDE y AZTERKOSTA, puestos en marcha por el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco; desde ellos analizamos el estado ambiental y la evolución anual de nuestras aguas. En esta andadura en la que estamos embarcados hemos aprendido algo que os interesará.



Componentes de la Asociación de vecinos de Ulía.

¿Sabías que, una vez aprobada la instalación de una Estación Depuradora de Aguas Residuales (EDAR), la Plataforma por un saneamiento racional de Donostialdea-Bahía Pasaia propuso una depuradora de 10,6 m³ de capacidad por segundo?

La administración central decidió que tuviera 5,03 m³, para, finalmente, rebajarla a 4,5 m³ por segundo; argumentando que *el Cantábrico se lo traga todo*. No obstante, tenemos que decir que se ha diseñado de manera que pueda llegar a tratar en el futuro un caudal

de 6 m³ por segundo. Esta estación depuradora, ahora en construcción, dispondrá de una filtración para sólidos menores de 50 mm y de una segunda filtración para sólidos menores de 30 mm. Después de este tamizado, pasará a la siguiente fase de proceso de regeneración del agua y, finalmente, a través de un conducto subterráneo llamado emisario, será vertida a 1.200 m de la costa y a 46 m de profundidad.

Y en lo referente a vertidos contaminantes en ríos y costa...

¿Sabías que la Administración vasca ha aplicado en Gipuzkoa 16 sanciones en 2001? Multas por un importe total de 5.750.000 pesetas e indemnizaciones por *daños al dominio público* por un importe total de 1.211.960 pesetas. Están, además, abiertos 24 expedientes sancionadores en fase de instrucción y hay 22 expedientes más en fase de apertura.

Os animamos, pues, a que, partiendo del nacimiento de un río y repartido en varias excursiones, experimentéis su desarrollo (cómo va ganando anchura, cómo nace limpio y al atravesar espacios urbanizados aparecen los residuos) y, en este recorrido, lo acompañéis hasta su desembocadura.

En otra salida a la naturaleza podéis visitar una estación depuradora y llegar hasta la costa, donde el emisario se hunde en el mar. Allí, despediréis al agua, para recibirla con las primeras lluvias. Y así, el ciclo se repite.

Ibaialderi buruzko erakusketa

Ibaialde kanpainako erakusketa 150 x 120 cm-ko bederatzi panelek osatzen dute. Horietan, **Gure ibaiak** izenburupean, ibai-ekosistemak hainbat alderdi lantzen dira. Jolasen bidez, isurialde kantauriarren eta Mediterraneoko isurialdearen ezaugarriak, ekosistema eratzen duten osagaiak eta kate trofikoak erakusten dira. Gure ibaiak urteen igaroan jasan dituzten aldaketak ere ageri dira, antzinako eta gaur egungo argazkien eraketa-aren bidez. Erakusketaren beste atal batean Euskal Autonomia Erkidegoko uren kalitatea eta horien kutsadura kezkarria azaltzen zaizkigu. Erakusketak, azkenik, gure ibaien egoera hobetzeko ideiak eskaintzen dizkigu eta, mitologiaren eta toponimiaren bitartez, gure kulturen mendeetan zehar izan duen garrantziaren berri ere ematen digu.



Ibaialde

Ingurumen Hezkuntzako materialak


Josu Larruskain, Lourdes Muela.
CEIDA (koordinatzailea)
Eusko Jaurlaritzak. Gasteiz, 1998



Ibai ekosistema/ Ecosistema fluvial kartela eta gida

CEIDA. Eusko Jaurlaritzak. Gasteiz, 1998

Oso material egokia da ibaien azterketari ekiteko. Kartelean, uraren erabilpenarekin zerikusia duten jarduerak ageri dira (jostagarriak, industriakoak, nekazaritzakoak...). Koadernoak, berriak, kartelaren edukia bu-
ruzko azalpenak, proposamen didaktikoak eta bisitaldiak egiteko edota ezagupenak zabaltzeko helbideak agertzen ditu.



Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Unitate Didaktikoak. Oso material lagun-
garria da, Ibaialde kanpainaren parte hartzeko ez ezik, ibai-eko-
sistekin zerikusia duen edo-
zein lan garatzeko. Ikaslearen
materialarekin batera, irakasle-
tzako dossier bat ere badago,
prentsako zatiak, animalia eta
landaretzari buruzko gidak eta
gure arro garrantzitsuenen gaine-
ko datuak biltzen dituenak.

Ura tratatzeko instalazioak ezagutzeko bisitaldiak

Horrelako instalazioetan, presa baten edo araztegi baten funtzionamendua ikus daiteke, bai eta urari, edan ahal izateko edo ibai batera —kutsatzeko arriskurik gabe— isuri ahal izateko, eragiten zaizkion prozesuak ere.

Gipuzkoako Ur Partzuergoa

Bisitaldi bakoitzari astegun bat esleitu zaio, ondoko taulan adierazten den bezala. Taldeak 20 eta 50 ikasle artekoak izango dira eta, gutxienez, bi irakaslek joan beharko dute haiekin. Bisitaldiak 60-75 minutu irauten du.

Bisita egunak

Astelehena	ARRIARAN urtegia eta araztegia (Beasain).
Asteartea	AIXOLA urtegia (Eibar) eta KILIMON (Mendaro), ARRONAMENDI (Deba) eta IÑURRITZA araztegiak (Zarautz).
Asteazkena	BARRENDIOLA urtegia eta araztegia (Legazpia).
Osteguna	URKULU urtegia eta araztegia (Aretxabaleta).
Ostirala	IBAI EDER (Nuarbe) eta LAREO (Ataun) urtegiak. IBAI EDER (Azpeitia) eta BADIOLEGI (Azpeitia) araztegiak.

© 943 67 06 37 / 943 67 02 49 (Mikel Urruzola)

Bizkaiko Uren Partzuergoa

Antolatzen dituen bisitaldiak:

- **Zeanuriko Undurragako presa eta zentral hidroelektrikoa.**
Horietan Arabako Zadorrako urtegietako urak bildu eta, ondoren, energia ekoizten da Barazar eta Undurragako zentraletan.
- **Edateko Uren Tratamendurako Venta Altako instalazioa (Arrigorriaga).**
Bilbo Handia hornitzen duten urak arazten direneko lekua.
- **Galindoko Hondakin Uren Araztegia (Sestao).**
Bilbo Handiko etxeetako hondakin uren tratamendurako instalazioa.
- **Lamiakoko ponpategia (Leioa).**
Itsasadarraren eskuinaldeko urak itsasadarraren azpitik garraiatzen dituen ponpategia.
- **Deustuko Unibertsitateko sifoi (Bilbo).**
Ibaizabal itsasadarraren azpitik doan tunela, eskuinaldeko hondakin urak ezkerralderantz, hau da, Galindoko HUArantz garraiatzen dituzten hiru hoditeriak osatua.

Bisitaldien arduraduna: Ana M^a García

© 944 87 31 69 / Faxe: 944 87 31 30

Posta elektronikoa: consor01@sarenet.es



Gasteizko Udal Urak

Gaur egun, Arakako edateko uren araztegi eta Krispijanako hondakin uren araztegiara egin daitezke bisitak. Eskaearak hilabete lehenago egin behar dira, 945 16 10 12 telefono zenbakira deituta (Rosa Mariren galdez). Taldeek, gehienez, 30 lagunekoak izan behar dute, eta taldekideek, gutxienez, 12 urtekoak.



IRAKURGAIA**Erreka Mari. Euskal Herriko azken lamiña**

(Ipuina eta kasetea)
Txotxongilo bilduma.
Errein. Tolosa, 1995. Euskaraz.

Erreka Mari ipuinak lamia baten istorioa eta bera bizi deneko ingurunean, ibaian, gertatzen dena kontatzen du. Horrekin batera, amaiera zoriontsua duen laguntasun istorio bat garatzen da. Bi bertsio daude, taldekideen adinaren arabera erabiltzekoak. Bata, testu laburrak dituen, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko-entzat da, eta bigarrena, testu landuagoak dituen, 2. eta 3. zikloetakoentzat.

Ipuinaz gain, istorioa kontatzen duen kasete bat ere badago; beraz, Haur Hezkuntzan ere erabil daiteke. Ipuinaren formatuak bineta esanguratsuenen diapositibak egin eta, ondoren, kasetearekin batera, proiektatzeko aukera ere ematen du.

**EKIPAMENDUAK****Oñati Natur Eskola**

Aizkorritik hurbil dagoela, *Oñatiko Natur Eskola* leku bikaina da urak paisaia eragiten duen higaduraren ondorioak aztertzeko. Naturaz betebetea gozatzeko aukera emateaz gain, oso leku aproposa da sistema karstikoaren ezaugarriak, uraren iga-roak kare-harrian sortzen dituen forma bitxiak, leizeen sorrera, lapiazeak, ur-formazioak eta abar aztertze-ko. Agoitzeko bailarako zentral hidroelektrikoak ezagutzeko irtenaldiak ere antolatzen dira, bai eta ibai-ekosistemako fauna eta flora aztertze-koak ere; horietan behaketaren ondoren erantzuteko galde-sorta erraz bat erabiltzen dute.

Hona hemen eskaintzen dituen beste tailer batzuk: hazien ereintza eta hazkuntza, ogi eta taloaren prestaketa eta habi kaxen tailerra, besteak beste.

86. posta kutxatila

Olakua, 19. 20560 OÑATI

☎ 943 716 404

**ALDIZKARIAK****Elhuyar**

155. zk. 2000ko
ekaina.
Ura, urre urdina.

Aldizkariaren zenbaki horretan honakoak azaltzen zaizkigu, besteak beste: zergatik den ura edangai, uraren arazketa osatzen duten prozesuak, ur motak eta jatorriaren arabera erabiltzen diren tratamenduak. Horrez gain, munduko herrialde batzuetan ondainsun preziatu horren urritasunagatik gertatzen diren gatazkak ere azaltzen dira.

**El Ecologista**

23. zk. 2000ko abendua.
Urari buruzko ale berezia.

Oso-osoan, urari buruzko zenbaki berezia da, ikasgelan gai horri buruzko eztabaida interesgarriak sorraraz ditzakeena. Plan Hidrologiko Nazionalari, horrek proposatutako urtegi eta ibai-aldaketek eta horren eraginik nabarmenena jasango duten lekuei buruz luze mintzatzeaz gain, artikuluen eraginean arabera, 2000ko irailean onartutako Urari buruzko Zuzentarauaren aurrerapauso eta hutsuneak zeintzuk diren ere azaltzen da.

Baliabideak

www.imta.mx/otros/tedigo/home.html

Ur Teknologiaren Institutu Mexikarraren web gunea da, ikasleek zuzenean erabiltzeko moduko bitarteko bihurtu dena. Oso gune erakargarria da, urarekin loturiko jokoak, esperimenduak, igarkizunak eta abar eskaintzen dituenak.



Kantauriar isurialdeko ibaiak
<http://usuarios.tripod.es/rioseneuskadi>

Gazte zein helduei (euskaraz eta gaztelaniaz) zuzentzen zaizen web gune honetan, kantauriar isurialdeko ibaiak aurkituko dituzu: Bidasoa, Urumea, Oiartzun, Oria, Urola, Deba, Artibai, Lea, Oka, Butroe, Asua, Ibaizabal, Kadagua, Galindo, Barbadun.

“Inguru-minguru” ipuin-bilduma

Colección de cuentos “Inguru-minguru”

CEIDAK, ingurumenarekiko kezak eta literaturaren xarma ipuin-bilduman batuz, irakaskuntzako lehen zikloetara helarazi nahi du ingurumen-hezkuntza

El CEIDA pretende hacer llegar la educación ambiental a los primeros ciclos de la enseñanza mediante esta colección de cuentos, en la que se han unido la problemática ambiental y el encanto de la literatura.



“EAEko natur bideak” bildumako ale berriak

Nuevas entregas de la colección “Rutas de interés ambiental en la CAPV”

“Mendialdeko burdinbideak” eta “Triano eta Galdamesko mendiak: ibilbide seinaladunak” dira Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak argitaratutako bildumako 2. eta 3. izenburuak. “Vasco-Navarro trenaren ibilbidea” —bildumari hasiera eman ziona— ere berriro argitaratu da.

“Ferrocarriles de Montaña” y “Montes de Triano y Galdames: itinerarios señalizados” son los títulos de la 2ª y 3ª entregas de esta colección editada por el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio ambiente. También ha sido reeditada “La ruta del ferrocarril Vasco-Navarro”, que abría la colección.

IHITZAren ale guztiak sarean: www.euskadi.net/ihitza Todos los números de IHITZA en la web

Gai hauek prestatzen gabiltza:

8 zk.: Garraioa. Beharra ala luxua?
9. zk.: Lurzorua
10 zk.: El consumo

Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.

Números en preparación

Nº 8: El transporte. ¿Necesidad o lujo?
Nº 9: El suelo
Nº 10: Kontsumoa

Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.

CEIDA ingurumen heziketa zure eskura

BILBAO
Ondarroa, 2
48004 Bilbao
• 944 11 49 99
• ceida-bilbao@ej-gv.es

URDAIBAI
Udetxea Jauregia
48300 Gernika-Lumo
• 946 25 71 25
• urdaibai@ej-gv.es

DONOSTIA
Basotxiki, 5
20015 Donostia
• 943 32 18 59
• ceida-donosti@ej-gv.es

LEGAZPI
Brinkola, z/g
20220 Legazpi
• 943 73 16 97
• ceida-legazpi@ej-gv.es

VITORIA-GASTEIZ
Baiona, 56-58
01010 Vitoria-Gasteiz
• 945 17 90 30
• ceida-vitoria@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN